

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Herrera kontseilariak Nafarroako emakume kirolarien esfortzua eta kirolean emakumeen agerikotasuna areagotzeko ekarpena azpimarratu ditu

*Duela gutxi Espainiako txapeldun eta txapeldunorde izan diren eskubaloiei eta Alaia gimnastika erritmikoko klubeko kirolariei harrera egin die*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 16

Ana Herrerak Kultura, Kirola eta Gazteria Departamenduko kontseilariak Espainiako Eskubaloi Txapelketan txapeldun eta txapeldunorde izan diren Nafarroako haur eta gazte selekzioetako neskei eta Espainiako Taldekako Gimnastika Erritmikoko Txapelketan junior kategoriako irabazle izan den Alaia Gimnastika Erritmikoko Klubari harrera egin die, Tronu Aretoan.



Eskubaloiko nafar selekzioak eta gimnasia erritmikoko Alaia klubeko junior taldea, Herrera kontseilariarekin harreran, Tronu Aretoan.

Ana Herrerak oraintsu lortutako garaipenengatik zoriondu eta haien esfortzua eta kirolean emakumeen agerikotasuna areagotzeko ekarpena azpimarratu ditu. Halaber, kirolari gazteen erreferente izatera animatu ditu.

Lehenengoen kasuan agerian utzi du lehiaketa osoan erakutsi duten jarrera ona, eta Federazioak "Selekzioak" programen bitartez egindako lana aitortu du. Nafarroako Kirola eta Gazteria Sailak programa horretan kolaboratzen du.

Alaia Gimnastika Erritmikoko Klubari dagokionez, haren lehiaketa-maila handia azpimarratu du, eta omenaldi hori Nafarroako Gimnastika Federazioari luzatu dio, kirol-hitzordu garrantzitsuen egutegian estreinatu den Navarra Arenan Espainiako Lehiaketa antolatzeagatik eta bertan erakustaldi bikaina egiteagatik.

Ana Herrera kontseilariarekin batera Sara Oyónek Alaia Gimnastika Erritmikoko Klubeko junior selekzioko entrenatzaileak eta Andrés Gardek Nafarroako Eskubaloi Federazioaren lehendakariak hitz egin dute. Han izan dira ere Rubén Goñi Nafarroako Kirola eta Gazteria Institutuaren zuzendari-gerentea eta Primitivo Sánchez Kirol-zuzendariordea.

Harreran, Nafarroako Eskubaloi Federazioak, eskubaloiko gazte- eta

haur-selekzioek emakumeen kategorian, Nafarroako Gimnastika Federazioak eta Alaia Gimnastika Erritmikoko Klubak plaka bana jaso dute, aitorten gisara.

### **Ekintza Plana Kirola eta Emakumea**

Nafarroako Gobernuak 2017ko otsailean [Ekintza Plana Kirola eta Emakumea](#) martxan jarri zuen, foru-erkidegoan emakumeek kirolean gehiago parte har dezaten sustatzeko. Planak sei jarduera-eremu biltzen ditu: kirol- hastapena; berdintasunerako prestakuntza eta baliabideak; diru-laguntzak eta pizgarriak; agerikotasuna eta komunikazioa; kirol-erakundeak eta kirolean estereotipoak eta diskriminaziozko portaerak ezabatzea.

Hauek dira proposatutako neurrietako batzuk: Nafarroako Kirol Jokoen eredia berrikustea, emakumeen kirol-proiektuetarako diru-laguntzak areagotzea, emakumeen kirolari ikusgaitasun handiagoa ematea komunikabideetan eta berdintasun-unitatea sortzea, bere eskubideak urratuta ikusten dituen kirolariak egoeraren berri eman eta bitartekaritza eskatzeko.